

ttipi-ttapa

1990eko Azaroak 8

49. zenbakia

dohain banatzen da



Feriak:
Ohitura zaharrak
galtzeko bidean?

FRANTXISKAREN SASKIA

LEHIAKETA

Hamabostaldi honetako sariak



Legia 42, Tfnoa: 63 03 77. **BERA**

"PRONTO" espres-eltze bat



DONAMARIAKO BENTAK

Jatetxea - **DONAMARIA**

Afari bat bi lagunentzat



Eztegara 17, Tfnoa: 63 04 83 **BERA**

Kotoizko jertse bat

GOIKO Argazkiak

Altzate 36, Tfnoa: 63 05 15 **BERA**

Argazki makina bat

Portada moztu nahi ez baduzu, idatz ezazu erantzuna eta zure datuak paper batean eta azaroaren 22a baino lehen guri bueltatu. Animo! Zuk ere eskura dezakezu sari bat! Lehendabiziko hamabostaldiko sariak honelaxe banatu ziren:

Radio Bidasoak emandako **Irratia**, Hernaniko **Nekane Flamarikeri**; **Donamariako Bentak** emandako **afariak**, Berako **Patxi Irigoieni**; **Mari Luz Sportek** emandako **zapatilak**, Berako **Migel Sorondori** eta **Goiko Argazkiak** emandako **argazki-makina** Auzako (Ultzama) **Bixente Gelbenzuri**. Kartak, **Laia Musika Dendako M.J. Arburuak** atera zituen.

Galdera: Lesakan, zein urtetan ospatu ziren ofizialki lehen aldiz feriak?

Erantzuna:.....

Izen-deiturak:.....

Helbidea:..... **Adina:**..... **Tfnoa:**.....

Gusto baduzu, erantzun ezazu galdera eta guri bueltatu lehenbailehen: **ttipi-ttapa**, *Frantxiskaren Saskia*, Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA

non-zer

-
- 4** **AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
- 7** **HONTAZ ETA HARTAZ**
- 8** **IRAKURLEAK MINTZO**
- 9/21** **HERRIZ HERRI**
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
- 22** **ERREPORTAIA:** "Feriak: ohiturak zaharrak galtzeko bidean"
Aitor Arozena
- 24** **ELKARRIZKETA:** "Jendea gizarteratzeko era bat da kirola" Bortziritako Kirol Koordinatzailea den Mattari Altzuarteri egindakoa.
Roman Harribilaga
- 26** **KIROLAK:**
P.Petirena, Roman.
- 28** **HARMARRIJAKINTZA:**
Pio Benedicto de Urrutia
- 29** **ARO BERRIAREN ATARIAN:**
Fermin Alzuguren
- 30** **MERKATU TTIKIA**
- 31** **DENBORAPASA**
Enbido
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 3.300 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Kar-mele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txoperena, P. Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Mañone, Antton, Patxi Petirena, Olain Elkarrea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldia Argazkiak, Mattari, Fermin Alzuguren, OMT eta Enbido-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortziritako Euskara Mankomunitatea eta Nafarroako Gobernuua. **Inprimategia:** Jomisa (Irun)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazita-ko erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa	088
OSASUN ZENTRUAK	
Elizondo.....	452367 / 580235
Doneztebe	450300
Lesaka.....	637428 / 637336
Leitza	510248 / 510573
KONTSULTAK	
Arizkun	587039
Gartzain	580451
Oronotz-Mugaire	592024
Ituren	450183
Sunbilla	450283
Goizueta	514067
Igantzi	637755
Arantza	634131
Bera.....	630929 / 630036
Etxalar.....	635105
Urdazubi.....	599130
ANBULATORIOAK	
Irun	630264/621106
OSPITALEAK	
Irungo ospitalea	614444
Nafarroako ospitalea	102100
SSko urgentzi zerbitzua	246750
Virgen del Camino erresidentzia	262700
Gurutze Gorria.....	226404
ANBULANTZIAK	
Oitz	450242/450342
DYA	
Lesaka (larrialdiak).....	(943) 464622
Elizondo (larrialdiak).....	171717
FUNERARIA	
Lesaka.....	637404
SUHILTZAILEAK	
Oronotz-Mugaire	592044
GARRAIOAK	
Bidasotarra	630279
Baztanesa	580129
Leitzarar	515018
HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:	
Elizondo	580730
Lesaka	637154
Bera	630104
ABERIAK:	
Iberduero	450335/450336

Deialdiak

► Etxalarren, azaroaren 9an Etxalarko Euskara Batzordearen bilera.

► Beran, azaroaren 13an, Berako Euskara Batzordearen bilera.

Hitzaldiak

► Beran, Gure Txokoak ARANZADI Natur Zientzi Elkartearen laguntzarekin antolatutako "Mikologi astean", azaroaren 8an, 7.30etan, Xabier Laskibarrek emandako "Euskalerriko Perretxi-

koak" hitzaldia; azaroaren 9an, 7.30etan, Daniel Palaciosen "Perretxikoekiko zale-tasunaren hasiera" hitzaldia; guztia, "Kultur Ihardunaldiak" en barruan.


► Elizondon, Baztango Udalak, GOROS-TI Natur Zientzi Elkartearen laguntzarekin antolatutako "Baztango III. Mikologi Ihardunaldiak", azaroaren 13tik 18ra, 13, 14, 15 eta 16an Perretxikoei buruzko hitzaldiak, 17 eta 18an, larunbata eta igandean, perretxiko eta onddo erakusketa.

Dantzaldiak

► Lesakan: • Azaroaren 10ean, Atxaspi ostatuan, LABAINAK taldearen kontzertua. Azaroaren 11an, Plazan, 7.30etatik aurrera IZADI taldearekin dantzaldia. • Azaroaren 18an: Plazan, 7.30etatik aurrera MINXORRIAK taldearekin dantzaldia.

Bestak

► Aurtitzen: bestak azaroaren 9tik 12ra. Igande arratsaldean, dantzaldia EGAN taldearekin.

Bota bertsoa**Patxi Larretxea**

Gaia: Xorroxin irratia-
lizentzia ukatu diote

Doinua: Aita izana

Txori polit bat sortu zitzaigun
Baztanen dauka kabia,
egun ta gau kantun pasatzen
ahots fina ta xuabia.
Hamar bat urte lanean iada
langile paregabia,
baserri eta herriak ditu
alaitzen alafedia,
nork ez du entzun berak izena
du Xorroxin irratia.

Euskara ez da komeni nonbait
gehiegirik entzutea,
Baztan aldean gure hizkuntza
orain indarberritzea.
Eskuinak eta "sozialistek"
nahi dute bera hiltzea,
gure hizkuntzan ezin solastu
hauze da gurutzea,
hala ere ez dute lortuko
Xorroxin ixildutzea.

AGENDA

Erakusketak

LETRAKIT:

Beran Azaroaren 24,
25, 26 eta 27an

Herriz herri dabilen erakusketa honen helburua, "euskara idatziaren imajina hobetzea" litzateke, batez ere OHO eta BBB edo LH ikasten ari diren ikasleen artean. Horretarako, hiru modulotan (Umeen moduloa, gazteena eta orokorra) banatuko da erakusketa eta hauetan, euskal literaturak dituen idazleak ezagutarazten eta euskal literaturak dituen pertsonai ezagunenak hedatzen saiatuko dira.

Berez, erakusketa zenbait kanpaina-denda haundiretan antolatua dago eta erakusketaz gain, ikusleen parte-hartze aktiborako bideak izanen dira.

OILASKO IZTERRAK TXANPAIN SALTSAN

Osagaiak 4 lagunetzat:

4 oilasko izter, oilasko gibela, haragi xehe-tua, tipula, baratxuria, piperbeltz pixka bat, txanpinoiak, gatza, ardo xuria eta txanpaina.

Izterrei hezurrak kendu. Zartagi batetan



Manuel Olondriz-ek emana.
OLARI Jatetxea, IRURITA

olioa, tipula eta baratxuria jarri egiten. Egina

dagoenean, haragi xehe-tua eta gibela bota. Hau dena egina dagoenean, ardo-xuri pixka bat bota eta ondoren dena xehe-tu batidora batetan.

Oilasko izterra betetzeko gatzaz eta piperbeltzez moldatu. Trituratutako osagaiekin bete eta josi palillo batez. Labean sartu txanpinoi batzurenkin eta egina dagoen txanpaina bota.

Kirolak

► Beran, azaroaren 11an "Herri Kirol Jaialdia". Parte hartuko duten taldeak hauexek izanen dira: NARBATE, Sunbilla eta Basaburua.

Ibilaldiak

► Azaroaren 10-11an, mendigoizaleen bidaia Ani

mendira. Autobusa debalde izanen da. Tfnoa: 637005.

► Larun Mendi Taldea: •Azaroaren 18an Labeagara.

Botikak

•Azaroaren 10-11an, Lesaka, Sunbilla eta F. Iturralde (Elizondo).

•Azaroaren 17-18an, Etxalar, Doneztebe eta F. Lezaun (Elizondo).

Feriak

► Donezteben, azaroaren 16an, ortzilara.



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



MALDAERREKA S.A.

FUNERARIA ZERBITZUAK

Bittiria kalea -Tfnoa: 637404- LESAKA

GRUPO



ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

AGENDA

Irratia

Xorroxin Irratia

Bortzirietako eskoletan Urrian eta Azaroan egingo dituzten irratsaioen zerrenda:

- 5, 6, 7, 8, 9an Lesakako Eskolatik.
- 12, 13, 14, 15, 16an Lesakako Ikastolatik.

Baztan-Malerrekarako eguneroko programazioa

- 8,00tik 12etara: Musika.
- 12etan: Egunon.
- 12,05: Etxeko lanak.
- 12,15: Konkurtso kulturala.
- 12,30: Egunkariak begiratuz.
- 12,45: Nafarroan zehar
- 13,00: Herriz herri.
- 13,25: Oharrak, etab.
- 13,30: Gaur (Egunero gai desberdin bat).

Ondoren, konkurtsoa, dedikatoriak eta musika arratsalde osoan zehar.

Zinema

"Cry-Baby", USA, 1990, John Waters.

1970 inguruan ipar-amerikar batzuk zinema independenteari ekin zioten. Zortzi edo hamar komertzializatu ondoren, nahiko ixildu zen mugimendua. Geroztik, noizean behin ailegatzeko zaigu filmaren bat kutsu horrekin eta hauxe dugu bat. Lehenago, filma independenteak, garai



hartako tema tabu zirenak erabiltzen zituzten argumentutzat: Yankien politika, sexoa, erligioa edo gai marjinalak. Gaur egun gai

horiek tabu ez direnez, zineman behintzat, "independiente" edo desberdinek pertsonaiak ditugu, filma honetan bezala.

1954. Baltimore hirian gertatzen den bi koadrilen arteko ezin ikusiaz ari da. Motoak, kartzelak, dantza eta musika numeroak aipagarriak dira. Komedi entretenigarria eta koloretua. GOLEM - IRUÑEA

Bideo berriak



► "Indiana Jones y la última cruzada", USA, 1989, Steven Spielberg.

Indiana Jones-en hirugarren abentura filma; le-

hendabizikoak pentsatzen zen baino arrakasta handiagoa izan zuen, bigarrenak ere nahikoa eta hirugarren honek ez du gutxiago. Etxean ikusteko aukera ederra.

► "El Club de los poetas muertos", ENGLAND, 1990, Peter Weir.

Zuzendari Australiar honen filma hau izan da aurtun diru gehien eman, eta sarrera gehien izan duena. Pantalla haunditik



kendu berria den filma honek irakaskuntzari buruzko argumentoa dauka. Gai interesgarri eta serioa. BIDEO BELAI - LESAKA



AFRO
REGGAE
ZOUK

ZAGIT

Taberna. JARAUTA, 98.
IRUÑEA. Tfnoa: 22 14 40

IRUBIDE

ostatua
erregia

Tfnoa: 63 71 27 LESAKA



Lore eta landareak

Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

GAZTAÑAGA

Taberna

Bokadilloak eta pintxoak
Tfnoa: 610708 - LEITZA

ETXEGARAI

BIDEO KLUBA

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

Telebista eta Bideoak
Antena kolektiboak eta
banakakoak
Konponketa tailerra

«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat
pentsurik egokiena

Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

Xorroxin eta Euskalerrria irratia FM lizentziarik gabe

Euskara, lekurik gabe Nafarroako irratietan

Kritika zorrotzak egin dizkiote berehala Nafarroako Gobernuari, honek egindako FM lizentzien banaketa dela eta. Izan ere, banatu berri dituen 7 lizentzien artean ez dute lekurik izan euskaraz emittitzeko erabakiarekin Xorroxin eta Iruñeako Euskalerrria irratia aurkeztutako eskariek.

Gogoratu, Baztan-Malerreka-Bortzirietako 55 erakunde (Udal eta eraguzietako Elkartek) izenpetu zutela bere garaian idazki bat, Xorroxin irratia erantzutako lizentzia bat eskatuz.

Beren protestarik biziena agertu duten pertsonai, erakunde eta partiduen artean aipatzekoak dira bertzeak bertze, Euskal-

tzaindiako idazkari nagusia eta Nafarroako Gobernuaren Euskara Kontseiluaren partaide zen Jose Maria Satrustegik zuzendutakoa, azken erakunde honetan betetzen zuen kargua bertan behera utzi egin duelarik; Euskaltzaindiak zuzendurikoa eta HB, EA, IU, EE eta Batzarrek eginikoa.



Bortzirietako udaletako 13 funtzionario eta Osasungintzako 10 langile euskalduntze-alfabetatze ikastaroetan ari dira. Ikastaroaren helburua, funtzionario hauen euskara ezagupenak, betetzen duten lanpostuak eskatzen duen hizkuntze-perfilari egokitzea da. Hau da, herritarrekin hitzez zein idatzizko harremanak zuzentasunez euskaraz bete ahal izateko prestatzea.

“VI. Bidasoa bertso paper lehiaketaren sariak

Urriaren 27an banatu ziren Gure Txokoa Elkartek antolatutako lehiaketa honen sariak. Aurtengoan, 56 izan dira aurkeztutako lanak.

16 urtetik goitikoe-tan, lehen saria hutsik geratu zen; bigarrena, Lesakako Manolo Arozenaren “Baloi kontuak” lanarentzat izanez, 14-16 urte bitartekoetan, Lesakako Estitxu Arozenaren “Nere begiek ikusten dute” lanarentzat izan zen lehen saria. Bigarrena, Urruñako Urko Atxotegiren “Harri bizitza” lanarentzat, 14 urte arterainokoetan azkenik, Lesakako Estitxu Fernandezentzat lehen saria eta Berako Joseba Errandonea, Amaia Bikuña eta Iratxe Aranbururentzat “aipamen” bana.



BATZOKI
JATETXEA
OSTATUA
Tfnoa.: 63 79 31
Lesaka

J. M. ANDUEZA
Elektrizitate instalazioak
Bidasoa 77, Tfnoa: 63 08 54
BERA

MEKANOTERAPIA ZENTROA
LUR APAĻ

BIZKARRA - ARTRITISA - ZAINAK - STRESA
Plaza Zaharra 7, Tfnoa: 63 70 11 LESAKA

TXOKO
ERRETEGIA

Bazkari, afari eta gosariak ematen dira

ITUREN

Tfnoa.: 45 04 91

IRAKURLEAK MINTZO

EHIZARI JARRITAKO BERTSOAK

Doinua: Pasaiako
herritik

Urria iritxi da dagoeneko aurten jende asko gustora naiz ez egonarren uso ehiza baitago orain gure arte(a)n kaxulan saltsarekin nork ez luke janen.

Txarrak dira ehizari jendeak esanak "suntsitzaileak" ez dira asko aipatzen ehiztarien lanak ereindako zuhaitzak ta e(g)indako iturriak.

Hor doaz hiru bertso adierazteko gai honek dadukala eztabaida asko batzuek kendu nahian besteek ez uko norberak bere hildotik jarraitu beharko.



Xabier Portu
Telletxea

"BI HITZ" ANA PILAR ERASUN- ERANTZUTEKO

Zuk hasi ipuina eta zuk bukatu nahi?, ezta pentsatu ere!

Zuk hau esaten duzu: "*herriko jendeak ikasketa maila haundirik ez badu ere, jakinduri ederra duela, eta hau esateko, NIRE AITAK ESANA EDO ESAN NAHI ZUENARI PUNTA ATERA BEHAR DIOZU?*"

Begira, ni oso harro nago nire aita eta alkateak bere legislaturan, (beste zinegotzien laguntzaz) egindako gauzekin, eta ni bezala herriaren gehiengoa

(hori ikusteko irakur dezakezu aldizkari hau).

Ez pentsa nere aldetik beste erantzunik lortuko duzunik, nahikoa iduritzen zait horrelako komunikabide bat horrela erabiltzea, lotsagarria!

Herri honetan gauza ugari gertatzen da, adibidez, ikusi duzu nola geratu den Aurtiz "zure auzoko" frontoia, Aurtizko jendearen laguntzarekin? Zorionak ematen dizkiet hementxetik Aurtiztarrei.

Espero dut hau irakurri ondoren ez dudala nere etxean beste "dei internazionalarik" erantzun


behar izaterik izanen.



Kizkitza Isasi
72.673.208

GOZOTEGI - JARDINE

Itzea 3, 630786 - BERA


KIROLAK ZELA
Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98
BERA

ZAROS
Tfnoa: 63 11 38
Pilota Leku ondoan BERA

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

**BIDASOA
TAILERRA**
Bidasoa 99
Tfnoa: 630 188 - BERA


BOAN TAILERRA
 CITROEN Banatzailea
KOTXE BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
Herriko Etxeko Plaza - BERA

KLOXKA

Legia 11 - 63 06 64 BERA


**BOTXO
ostatua**
Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA

**SAROBÉ
okindegia**
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA


**EUSKALDUNA
JATETXEA**
Tfnoa.: 63 03 92
BERA

Udalbatzak, eremu bat birkalifikatzeko berriki hartutako akordioa ezabatu

Gehiengo osoa beharrezkoa delako, Nafarroako Gobernuak dioenez



Eremua kokaturik dagoen alderdiko bista

Artxiboa



Joantzenekobordako gasna gertatu zen irabazle

Roman

ROMAN HARRIBILAGA

Nafarroako Gobernuak eskaturik, Berako Udalak ezabatu egin du plenoan Hirigintzako Arau Subsidiarioetan "ez-hirigarri bereziki babesturik" kalifikaturik dagoen eremua "orokor edo arrunta" bezala birkalifikatzeko aurreko bertze plenoan harturiko akordioa.

Agindu horretarako, "hiri antolaketarako planak aldarazteko Udaleko kideen legezko kopurua gehiengo osoaren aldeko botoa beharrezkoa" dela dioen atalean oinarritu da Herri Arduralaritza.

Birkalifikapena egite-

ko akordioa bortz boto alde eta hiru aurkako emaitzekoa izan zen, sei beharrezkoak direlarik balio ahal izateko, Udalbatza hamaika kidez osaturik dagoenez gero.

Hala ere, eremuaren ja-beak berriro aurkez deza-ke eskaria; gehiengo osoa lortuko balu, Udalak hasierako onarpena emanen lioke, hilabeteko epea zabalduz iradokizunak edo sujerentziak aurkeztu ahal izateko; ondoren, berriro Udalbatzaren gehiengoaren behin behineko onarpena lortu beharko luke, berriro hilabeteko epea zabalduz zuzenketak aurkeztu ahal izateko, gero Iruñeako Lurralde antolaketa, Etxebizitza eta Ingu-

rujiro Sailera bidaltzeko eta haien eskutan geratuko litzateke behin betirako onarpena, bere kasuan, emateko.

IV. Gasna Lehiaketa

Berako "Joantzenekoborda" baserriko Pedro Telletxeak irabazi zuen Gure Txokoa elkarteko Kultura Sailak antolatutako "IV. Lurraren Eguna"ren barruan garatutako laugarren ardi gasna lehiaketaren lehen saria, 10.000 pezeta eta oroitzagarria eramanez. Bigarren saria Lesakako Jose Antonio Muñozek eskuratu zuen.

Jose Mari Andueza, Txomin Igantzi, Elisabete

Lekuona, Jose Antonio Gartzia, Bizente Irantzo, Ines Gorraitz, Mixel Aire "Xalbador II", Xalbat Katxenaut eta Txomin Arranbidek osatzen zuten epaimahaiak Lesakako Jose Antonio Muñoz, Berako Pedro Telletxea, Domingo Igantzi, Sokorro Almandotz, Lorentzo Zelaieta eta Pedro San Sebastian eta Arantzako Jon Larretxeak guztira aurkeztutako zazpi gasnen artean hartu behar izan zuen erabakia. Ondoren, saritutako bi aleen erdiak, enkantean salduak izan ziren, 3.200 eta 1.400 pezeta ordaintzera iritsiz.

Bertze bortz gasnen erdiak ere, saldu egin ziren.

LESAKA

Lapurreta saiakera ugari azken asteotan

Zenbait dendetan kristala hautsiz sartu ziren

AITOR AROZENA

Lesakako dendariak ezin izan dute lasai lo egin azken egunotan, duela aste pare bat gertatutako lapurreta saiakerak direla eta.

Ez dugu erranen lapurren sikosia dagoenik baina jendearen ahotan ez da bertze gauzarik aditzen eta zenbait zurrumurru ere zabaldu dira.

Badirudi lapurrek gauez burutu zituztela beraien "lanak" eta herriko punta batetik bertzerak ibili zirela zituzten asmoak betetzeko. Horrela, Erretiro karrikan dagoen gozotegian sartu ziren erreka aldeko leihotik, Albistur karrikan dagoen Legarra liburudendan ere bai, kristalak hautsi eta gero. Honez gain, Bittiria karrikan dagoen Gaia be-lar dendan ere sartu ziren



Irain dantza taldea

eta farmaziara sartzen saiatu ziren, baina ihes egin omen zuten inguruko etxe batetik leihora atera zirelako. Bortzirietako Osasun Zentruetik pastilla batzu ere ebatsi omen zituzten. Azkenik, herriko kanpoaldea bisitatu zuten, Beko-Errotako negutegietatik 20.000 pezeta inguru eraman bait zituzten gant-biotan.

Lapurretak ugariak

izan badira ere, erran behar dugu diru gehiegirik ez zutela eraman.

Atxiloketak

Garraiolarien grebaren erdian, Ramontxo Ordoki, Iñaki Fagoaga eta Sebastian Almandoz lesakar garraiolariak atxilotu zituen Guardia zibilak Matxainen. Bertan kolpe batzu jasota gero Berako kuartelera eraman zituzten, eta hortik Intxaurren-


do eta Antiguoko kuartelera, hauetan hiru lau egun pasa behar izan zutelarik. Greba bukatzerakoan, aske utzi zituzten kargurik gabe.

ttipi-flash

•III. Dantzari Eguna arrakastatsua burutu zen joan den Urriaren 21ean Irain Dantza taldearen antolakuntzapean. Azken orduan Lizarrako taldea ez zen etorri baina egon zen dantza ederrak ikusteko aukera hurbildu ziren taldeekin.

•Ahobatez onartu zuen Udalak Belaten barrena pasatzen den Iruñea-Irun ibilbidearen hobekuntza eskatzen duen HB alderdiaren mozioa.

•Paris-Dakarrean ez bazarete apuntatu, ez kezkatu: Lesakako kaletan barrena izanen duzu abentura bizitzeko aukera.



GOIZUETA
KIROLAK

Kirolak
Mendirako artikuluak

Behoko Plaza 10 LESAKA



★ KIXKUR ★

ILEAPAINDEGIA

Bittiria Tfnoa.: 637429 - LESAKA

ARRATZUBI
ARDOTEGIA

Tfnoa.: 63 72 79, Bittiria karrika - LESAKA

Deñe

LENTZERIA
MERTZERIA

Behoko Plaza 8, LESAKA

FONDA
XATURETXEA

Tfnoa.: 63 70 27
LESAKA

Usategietako igandea, alaia eta jendetsua

PELLO APEZETXEA

Bezperako eguraldi ederrak jendea beren etxeetatik mugitzera bultzatu zuen. Gaztearentzat inoiz aski luzatzen ez den gaupasan, hurbildu zen gazteriaren sasoiak gaueko frekkura gairitu bazuen, igandean herriak bizitu zuen giroa hagitz polita izan zen. Auto prozesioa goizez eta herriko plazako jende pilaketa arratsaldean, usopasa handia goian eta musika-dantza saioak behean, ordu atseginetaz gozatzeko aukera izandu zuten, bai herritarrek, bai kanpotarrek. Mendi aldera jo zutenei eguraldi onak lagun egin zien bezala, Lesakako musika Bandak eskainitako kontzertuak. **Berriozarrek**



Lesakako Bandaren aktuzioa

Dantza Taldearen saioak eta Egan musika taldeak girotu zuten karrika aldea. Plazan antolatutako ostutuak, zerbitzu ederra egin zuten.

Gizarte aituri berria

Hain solas arrotzez Asistente Sozial berria erran nahi dugu. Berriki burututako lehiaketan

(konkurtsuan) irabazle, Bortzirietako Mankomunitateak izendatua izan da. Iruñekoa eta euskalduna, bizilekua Lesaka izanendu Itziar Iriartek, hori baita bere izena. Etxalarren, ortziralez 10etatik 12,30etara egonen da.

Herriko Etxean euskaraz

Bortzirietako bertze

Udaletako batzuekin batera, jendeaganako zerbitzua hobetu nahi eta, euskara hobetzeko ikastaroa hasi dute Jose Luis Legarra eta Isabel Sanzberrok. Lesakako Herriko Etxean burutuko den ikastaro hau lau hilabetez luzatuko da, astean zortzi ordu beteko dituztelarik, eta Nafarroako Gobernuak ordainduz.

Haur gutti matrikulatu aurten

Jaiotzak guttitzea hemen ere nabaria da bertze herrietan bezala. Aurten, azken urteetako matrikula tikiena, hiru bakarrik, gertatu da. Hara, 80. hamarkadan herrian jaiotakoak urtez urte: 1980ean, 8; 1981ean, 11; 1982an, 5; 1983an, 5; 1984ean, 4; 1985ean, 6; 1986an, 6; 1987an, 3; 1988an, 10 eta 1989an, 7.

"Turismo berdea" bultzatzeko laguntzak emanen dira

Nafarroako zenbait bailaretan arrakastatsua suertatzen ari da

JON LARRETXEA

Udazkena aurrera doa eta natura lozorroan sartzen den eran, badirudi herri honetako bizitzarekin gauza bera gertatzen ari dela; beraz, nobedade

gutti kontatu ahal izanen dizuet gaurko honetan txoko honetatik.

Lehenengo astean bilera informatibo bat egon zen Herriko Etxean eta gonbenigarria izanen da han erran zenaren berri ematea

gaintik bada ere. Bilera honetara Diputazioko turismo saileko arduradun bat azaldu zen eta "turismo berdea" delakoaz eta dauden laguntzaz informatu zigun.

Berak zioenez turismo

mota hau, herri tikietan eta baserrietan egiten dena oso modan omen dago European eta, arrakasta ona lortu omen du Nafarroako zenbait bailaretan (Burge-

(bertze aldean segitzen du)

te, Otxagabia, etabar.). Horregatik hemen ere bultzatzea erabaki dute, izan ere baserriarrei irabazi bide polita emanen lioke ongi antolatuz gero. Laguntzak, baserriak egokitzeko, kanpinak, albergeak etabar eraikitzeke daude. Baserrian bertan alokatu nahi izanez gero guttienez bi gela hortarako jarri beharko liriteke eta gosaria zerbitzua eskeini. Laguntza lortzeko urtean lau hilabetez guttienez eta hamar urtez zerbitzua eskeintzera konprometitzen zara, laguntza gastoen %25a izanen zelarik. Plan honetara egokituz, Diputazioak berak eginen luke zerbitzuan pu-



Artxiboa

blizitatea bere turismo bulego guztietan eta prezioak berriz eguneko tarifetara egokitu beharko liriteke. Hala ere, Nekazaritza sailetik laguntza aunitzez hobeak daude,

%60ra iristen direlarik 35 urtetatik beherakoa izanez gero, baina nekazaritza sailera jotzeko nekazal aseguro soziala ordaindu behar duzu eta zure lehen dedikazioa nekazaritza

izan.

Udazkeneko Jira-Bira

Lehenko TTPI - TTAPAN bi aktuaioen berri ematen genuen. Azaroaren 3an eta 4ean. Hala ere, erran behar dugu 4koa, hau da, "Coral Unibersitaria de la Escuela de Magisterio"ren aktuaioa azaroaren 10era atzeratua izan dela.

Arau Subsidiarioak laister prest

Hilabete honetan bertan jendeaurrean jarriko omen dituzte herriko arau subsidiarioak, nahi duenak aldaketak eska ditzan, baina honen berri zehatzagoak hurrengo TTPI-TTAPAN.

IGANTZI

Igantzikoko bikote zaharrenari omenaldia

Opari ugari jaso zituzten Fermin Otamendi eta Ana Iñargak

OSKAR TXOPERENA

Besta giro polita izan zen Azaroan Ilean Igantzin, aspaldidanik zebilen jendea Fermin Otamendi eta Ana Iñarga Berrizandarrerai omenaldia egiteko gogotan. Gauzatu berriz, aipatutako egunean gauzatu zen.

Ez da nolana hikoia Fermin eta Anaren egoera. Ferminek 94 urte dauzka eta Anak berriz 90, eta 66 urte daramazkite ezkondurik. Guttitan dauka bikote

batek adin horretara elkarrekin heltzeko aukera. Badakizue ba omenaldi

honen arrazoia.

Ospakizuna, beurek nahi izan zuten, motza



izan zen. Meza eder batekin eman zitzaion hasiera, eta han egindako hitza eta eskakizunen ardatz izan ziren biak. Meza bukatutakoan zenbait opari hartu zituzten. Lehendabizi herriko alkateak plaka bat eman zien, hitz hauek grabaturik zeuzkalarik: "Igantzikoko herriak, bihotz-bihotzez zuen omenaldia- ren egunean". Ondotik beren auzoko kideek lore erramu bat eta bastoi eder bana eman zieten. Azkenik, herriko parroko



(bertze aldean segitzen du)

buru bezala. Martin jaunen eskutik, bien argazkia zeraman kuadro bikain bat hartu zuten.

Hau nahiko ez bazen beren bihotz zaharrentzako, elizatik ateratzerakoan bi ilobek auresku bat dantzatu zieten atarean. Besta bukatzeko, hamaitaketa bat dastatu ahal izan zuten guztiak. Biltoki Elkartearen.

Ordu batzuz, igantziar

guztion atautxi - amautxi izan genituen Fermin eta Ana. Zorionak.

Aitor Antxordoki, etorkizun haundiko pilotaria

Bertan bizi garenok ondo dakigu zein den Igantziko pilotalekuan ordu gehien sartzen dituen pilotaria: Aitor Antxordoki.

Eta ez du bertan baka-

rrik erakusten, baizik eta kanpoko zenbait txapelketetan ere.

Azkeneko eredu hortxe dugu. Tafallako "GRAVN Preselekzioko" txapelketa horretan. Kontutan har dezagun adin bakoitzean Nafarroako pilotaririk hoberenak hartzen dutela parte txapelketa horretan. Aurtengoan bera suertatu da garaile, Irigoien lesakarrarekin bi-

kotea osatuz (hau ere erdi igantziarra dugu, Miguel Mari Intxipikoaren semea).

Bide honetatik segitu ezkeru seguru gaude pilotari fina aterako dela Aitor Antxordoki.

Afizioa ez zaio falta eta hori izaten da beharrezkoena. Animo eta aurerra begiratu.

ZUBIETA

JUAINAS

Urria joan da, ez espero genuen bezain emankorra izanik. Euriak etxeratzeko giroa ekarri du eta... nola ez?... Errandonea la nuit.

Ihizturik uso ezaren ondorioak baretzeko musean botzen dituzte orduak, mahaiaren inguruan... mahaiatik mahaiara afaltzeko gogoa sortzen omen da eta aurten usorik ez badago, iazko basurdeak dagoeneko samurtuak diren ala ez konprobatzeko gogoa sortuz... Eta horrela, afari eder bat boteaz, musean arituz, beste gaupasa. Azken honetan sasoi haundiena erakutsi duena Mari Jose izandu da. Aurrerakoa, gaua kamareraz bota ondoren eguardian kamareraz segitzen bait zuten

Musean aritzen omen dira herriko kirolariak, **herri kirolaren kirola-**



Artxibotik argazki hau errekuperatu dugu. Zenbat urte izanen du? Begira begira ziren

riak esan nahi dut, hau da, Jon Mikel hain kontent paratzen zuen entrenatze asmoa asmoan gelditu dela momentuz... partidak luzeak bait dira! Finalean toki on bat ez lortzeagatik inor ez bada haserraten, ongi da, jostaketa bezala hartzea bate-
re gaizki ez legoke.

Haurrek Bertizan jostaketa ugari egin omen dituzte, jan, lo eta egun osoa elkarrekin botzea

nahiko ez balitz. Zein ongi pasa dituzten egunak frogatzeko, gehienak bertan segitzeko gogoa erakutsi zutela esan beharrik ez dago, saldistarrekin eta eratsundarrekin elkarketa ongi funtzionatu al zuen?

Espero genuen euria etorri da, hagitx ongi, baina justu ostatuko teilatua konpontzen ari zirela.

Teilatu berriak euriari farra. Maestraren etxe-

koak berriz, farre egin beharrean, zituzten pozal guztiak prestatu behar izan omen zuten. Inānik exajeratuaren fama du baina, esaten duenez gero igande-astelehen gauean 30 litroko pozala txikia gelditu zen itxosura bat kontzeko. Hau da, meteorologoak esanen zuten arabera: "En la noche del 28 de Octubre se recogieron en Zubieta más de 30 litros por cubo".

ITUREN

Aurtizko bestetan "Koianea Txikia" pilota lekua inauguratuko da

IBAN ISASI

Bai, lan ugari egin behar izan da fruitua, "Koianea txikia" pilota lekua orain dagoen bezala ikusteko. Aurtiztarrek egindako auzolanen bitartez (zorionak hementxe-tik) bukatu dute bestetarako.

Barruko paretan pika-tze, masatze eta margo-tzea, zapaiaren mat-xunbraketa eta estalirik gabeko zatiaren estalketa dira egindako lanetatik garrantzitsuenak.

Bertzalde, beste dago-kienez kirolak, bertsola-riak, Lesakako bandaren aktuazioa, Iturengo trikiti-lariak, EGAN taldea igan-dean, eta bazkari herrikoia daude batipat egitarauan.



Lasagako argi berria martxan

Orain dela bi aste edo, martxan jarri zuten Lasagako kaleetako argiteri berria. Lan ugarien ondotik bikain geratu da.

Bertzalde, argiaren, telefonoaren eta uraren kanalizaketa berria ere bukatu dira, dena lur azpitik egin delarik. Honekin arau edo norma subsidiarioen lanak bukatu dira Lasagan.

Lezoko 70 haur Maiatzan etorriko

Bi tandatan etorriko dira Iturengo udaletxera Lezoko ikastolakoak. Iturengo eskolako hurrekin ikasiko dute egonen diren denboran. Bertako eskolako maisuek interesgarritzat jo dute esperientzia hau.

Mantentze gimnasia

Bertako emakumeen multzo batek iaz egin zuten bezala aurten ere mantentze gimnasia egin nahi zutela eta ikastaro hau antolatu du Iturengo Udalak. Astez bi aldiz joaten dira emakume hauek Udaletxearen erabilera ugariko gelara eta bertan ordu batez zainketa egiten aritzen dira.

SUNBILLA

Arrakasta haundia herri-kirol txapelketan

Azaroaren 25ean, jaialdi ikusgarria

PATXI PETRIRENA

Azaroaren 1ean Elizondon jokaturako herri-kirol txapelketaren finalean, Sunbillako taldea batera zen garaile Narbarte-koarekin lehia estuan ari

ondoren. Azkenean sokatira izan zen garaipena erabaki zuen froga, konbinatuan edo froga anitzean Narbarte-koek egin bait zuten denborarik hobere-na, sunbildarrei arpanean ebaki bat txartzat eman

eta bertze bat gehiago egi-nerazi ziotelarik.

Hala ere, sokatiran gertatu zen ustekabekoa, Nafarroako txapeldun den Amaieur, Narbarte, Basa-burua eta Zubietari iraba-ziz, hamar tiraldietan na-

gusi izan bait ziren.

Finalean aritu zirenak honako hauek izan ziren: Xanti Arretxea kozkor bilketan, Felix Espelo-



(bertze aldean segitzen du)

sin txingetan, Felix Etxeberria aizkoran, Esteban Agesta, Florentino Gelbentzu eta Jose Jabier Agirre zakuekin, Juantxo Indakoetxea eta Santiago Inda arpanean eta sokatirran berriz Meliton Irazoki, Juan Luis Alzugarai, Pako Alzugarai, Joxe Mitxelena, Mario Mitxelena, Patxiku Mitxelena, Migel Mari Mitxelena eta Tiburtzio Espelosin. Txapelketan zehar aritu dira Jose Mari Elizondo, Joxe



Martin Agirre, Mikel gaztea ere. Kapitan gisa
Maia eta Indakoetxea Antonio Espelosin.

25ean ETB rekin

Denboraldiari amaiera emateko, kirol talde hoñek jaialdia antolatu du hilabete honen 25erako. Sokatirran munduko txapeldun den Nuarbe, Nafarroako txapeldun den Amaiur eta Sunbilla ariko dira, aizkoran Etxeberria sunbildarra Donato Larretxearekin Jabier eta Mikel Mindegiaren kontra, eta Iñaki Perurenak rekord berri bat jarri nahi du esku batez 262 kilo altxatuz.

MALERREKA

Doneztebeko Eskolan, 241 haur euskaraz eta 191 erdaraz

Malerrekako bertze eskoletan euskara da nagusi

TXEMA ALDABE

Malerrekako Eskola guziak martxan daudezin honetan dagoeneko egin daiteke herriz-herriz haur kopuruen zerrenda. Jakina

dugu Doneztebeko Eskolak biltzen dituela haur gehienak, 469 hain zuzen ere. Ondoren Sunbilla dugu 83 haurrekin; Iturenen berriz, 55; NARBARTEN 23; Legasan 21; Ezkurran

19; Saldiasen 14; Zubietan 12; Eratsunen 9 eta Beintza-Labainan 5.

Urrotz, Oitz, Donamaria, Elgorriaga eta Oieregin ez dago eskolarik. Herri hauetako haurrak

Doneztebera joaten dira.

Dena den zehatz-mehatz eta herriz herri D ereduan dagoen haur kopurua ikusteko, ondoan doakizue koadro hau.

Herria Ikasleak

Bertizarana	44
Eratsun	9
Ezkurra	19
Ituren	55
Labaien	5
Saldias	14
Zubieta	11

Malerrekako gainerako herrietako haurrak Doneztebera joaten dira ikastera. Ereduz eredu eta O.H.O. osoan, honako kopuru hau dago aurtien:

A	B	D
191	37	241



BAZTAN

Xorroxin Irratiari lizentzia ukatu Nafarroako Gobernuak

Eraikunde ugari azaldu dira erabaki honen aurka

MAÑONE

Nafarroako Gobernuak Xorroxin irratiari Elizondon FMn emititzeko lizentzia ukatu dio eta "Informacion por Ondas S.A."-ri eman. Kate honek Tuter eta Altsasuko lizentziak lortu ditu ere. Cope kateak Tafallakoa, SER kateak, Azkoien - Peraltakoa, Radio Blancak Iruñeko bat eta "Compañía navarra de radiodifusion" delakoari Iruñeko bertze bat. Erran beharra dago denak erdaraz emitituko dutela. Erabaki hau Euskaltzaindiak, Euskalerria Irratiak eta Xorroxin Irratiak, bertzeak bertze, kritikatu egin dute.

Bertzalde erran beharra da lizentzien banatze honek, Jose Maria Satrustegi Euskaltzaindiako partaidea, "Consejo Navarro de Cultura" delakoan zuen postua uztera bultzatu duela.

Ekologi argazki lehiaketa

Baztango Udalak "Baztan bailara" deitutako bigarren ekologi argaz-



Arizkunenea kultur etxea

kien lehiaketa antolatu du. Bertan, nahi duten argazkilari guztiak parte har dezakete. Gaia ekologia beharko du izan: fauna, flora, paisaia, pertsonak bere inguruan, etabar...

Argazkiak bi motakoak izaten ahal dira: txuribeltzak, birajeak onartuko direlarik, eta kolorezkoak. Edozein neurritakoak izan daitezke. Hauek, 30x40 zmkokoak kartulina batean bidali behar dira. Obra bakoitzaren gibelego aldean izen-

burua, lema, eta argazkia lortutako lekua jarri behar da eta aparte, sobre itxi batean kanpoko aldean, lema berbera eta barrenean, egilearen datu guztiak.

Argazkilari bakoitzak guttienez hiru argazki aurkeztu behar ditu eta gehienez bortz. Hauek helbide hontara igorri behar dira, Azaroaren 15a baino lehenago: Baztango Udala. Argazki lehiaketa 31700 Elizondo.

Argazkilari profesio-

nalez osaturik egonen den epaimahaiak abenduaren 2an saritutako obrak eza-gutzera emanen ditu komunikabideen bidez.

Sariak hauek izango dira: 60.000 pezeta edozein motetan aurkeztutako hiru argazkien bildumari. Eta mota bakoitzan lehenengoari 30.000 pezeta, bigarrenari 20.000 eta hirugarrenari 10.000. Baita ere, diploma bana emanen zaie. Sariak abenduaren 8an banatuko dira. Udaltxeak Arizkunenea kultur etxean aurkeztutako argazki guztiakin erakusketak egingen du.

Iazko irabazlea Carlos D'arlas Bidegain izan zen Erratzun lortutako argazki batekin. Finalera, Elena Vazquez "Bagordiko bide" argazkiarekin eta Blanca Vertiz "Almandozko mendiak" deitutakoarekin iritsi ziren.

Zikiro Jatea

Azaroaren 13an, San Martin eguna, Zikiro jatea izanen dute Gartzainen. Orainarte, garai honetan ospatzen zituzten bestak.

IPINGI

ARROPAK, TELAK, OPARIAK ETA
ESKULANGINTZARAKO MATERIALEA

Santiago 88, Tfnoa: 580939 ELIZONDO

BEATRIZ

Lurrin denda

SANTIAGO 53 - Tfnoa: 5802 83 - ELIZONDO

Urte txarra nekazariantzat

MARGARI eta KORO

Aurten, urte txarra izan da nekazariantzat, alde guzietatik zafratuak izan baitire.

Lehenbiziko esnearen prezioa merketu zen hamar pezetan inguruan. Gero, uda lehenean belar gutti bildu zuten, euririk ez zuelakoz egin, uda azkenean berriz, soroak ez biltzen ahal, arrek jan bait zituzten belai guztiak.

Eta ondarreko, garraio-larien grebarekin, aunitzek zerrieri bota ziozkaten esne guztiak. Berriz ere diru pila bat gastatu beharko dute, luzerna eta lastoa erosten, heldu den negu luzean, beraien aberak bazkatzeko.



Artxiboa

Ez, nekazariak ez dira kontent, bainan badituzte beren arrazoi ederrak.

Ibilaldia

Urtero bezala, Zuga-

ramurdiko gazteak egin dute beraien itzulia Sarako eta Etxalarreko Usategietan barrena

Hemezortzi gazte aterra ziren plazatik, eta Ma-

darian barrena joanez, hasi ziren Atxuri mendia igaten, han bidearen erdia egin zutelarik. "Akoka" deituko alderdian, ohitura den bezala gelditu ziren gosaltzerat, tripa ongi bete ondoren, abiatu ziren Sarako Usategietarat. Han, espero zuten bezala, ihiztariek, Rikar trago batzuek eskeini omen zioten, eta ondarreko eguerdian ailegatu ziren Etxalarrera. Han bazkaldu omen zuten, arratsaldea pasatu, irri batzuek egin eta ilunduta itzuli ziren Zugarramurdi-ra.

Ez dakigu zer demonstre gertatuko ote zen han, batzuek herrian sartu zirela lau zangoka.

Esquisaroi
Jatetxea

Jaime Urrutia. Tfnoa.: 580013
ELIZONDO



ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



OSKORRI
LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE



Ezkontzetako erreportaiak
Argazkiak eta bideoa

Tfnoa.: 58 01 55
Santiago 40
ELIZONDO

ARROPA DENDA



CERVANTES
HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinarako bidean, 66. kilometroan
AMAIUR Tfnoa: 45 30 00




FOTO ZALDUA

Argazkiak, Bideoa, Markoak
ELIZONDO TF: 58 04 91
DONEZTEBE TF: 4503 64

LEITZA

*** Hutsik dauden etxe-bizitzek zerga bat ordaindu beharko dute**

Udalak erabaki duenez, hutsik dauden etxe eta pisuei inpuesto bat sartuko zaie. Horren arrazoia: etxe - bizitza franko hutsik, eta aldeberean herritar franko bizitzeko lekuren baten bila. Hogeitamar egun daude alegaziorik aurkezteko.

*** "Oinarrizko Osasun Zerbitzua" hasi da lanean**

Herrian despatxo berri bat jarri dute. Izena: Oinarrizko Osasun Zerbitzua. Zertarako?: Behar sozial batzuri erantzun egokia emateko edo eman asmoz. Nori laguntzeko?: beharrezan aurkitzen diren herritar guztiei, baina praktikan, batipat, adineko jendearentzat, elbarri-tuentzat, ama solterentzat... eta jubilazioak, In-serso, pentsio asistentzialak tramitatzen laguntzeko.

*** 121 herritar**

"kanping" berri bat estazio zaharrean egitearen aurka mintzo izan dira, idatzi baten bidez, beste leku egokiago bat bilatu behar zaiola proposatuz.

* Azterketa luze luze batzuren ondorem, Jose Luis Azpiroz Elduaien-ek lortu du administrari lanpostu fijoak Udalan. Eta Juan Mari Zabaleta Garinek menditako guardarena.

*** Abudo musika izanen da igande arratsaldetan**

Negu partean, igandero plazan musika jartzekotan daude.

"Aurrera" Elkarateak darama iniziatiba, eta Udalaren eta komertzio eta elkarteen laguntza espero da.



Antton



Antton

Kirol mundutik

- Zazpi ekipo osatu dira herrian Neguko III. futbol txapelketan aritzeko eta hasiak dira jokatzten.
- Eskola mailan, Nafarroako Haur Jokoetan, Leitza-ko eskolakoek Xake eta futbiton arituko dira.
- Eskalada ere bultzatu nahi da. Frontoia-ko horma bat prestatuta dago eskaladan ikasten hasteko. Gainera, mendi ibilaldiak eta eskalada ikastataroa elkarrekin joanen dira, biz bat eginez. Aurrera elkarre-aren babesean.

ANTTON

Apezetxea - Apezetxea pilota txapelketaren irabazleak

Finalean sei tantuetan utzi zieten bi Salaberriei

TEBAN AROZENA

Urriaren 27an jokatu zen XII. pilota txapelketaren finalak eta iazko irabazleak izan ziren helburu mailari dagokionez mintzat, hau da, Juantxo Apezetxea eta Joxeanton Apezetxea. Zapelak esku-zeko inolako zailtasurik ez zuten izan, partiduz gero zehar atzetik ibili zituzten Angel eta Mikel Angel Salaberria, 22 eta 16 izan zelarik azken irabazleak.

Beste kategorietan emandako emaitzak hauek izan ziren: benjaminetan, Iraeta-Zubirik 18, Miran-Juantorenak 14; alebi-



ArtxiBOA

netan, Olaizola-Olaizolak 18, Lujanbio-Apezetxeak 15; infantiletan, Olaizola-Berroetak 18, Ibarreta-Loidik 11; paletan, Etxegia anaiek 35, Lujanbio-Apezetxeak 19.

Zaharren eguna

Zaharren eguna ere ospatu berria da gure herrian eta urtero bezala, Umore-ona elkarteak izan da antolatzailea, ehun aiton-amonetik gora bildu

zirelarik bazkaltzera. Hauek mus eta truk txapelketak jokatu zituzten. Trukeko irabazleak Sarango Dolores eta Errekaideko Fermina suertatu ziren, Joxe "frantxesak" eta Esteban "Porroxtak" eskuratu zituztelarik musseko sariak.

Arau Subsidiarioak onartuak

Goizuetako Udal Arau Subsidiarioak onartu ditu azkenik Nafarroako Gobernuak. Hori dela eta eraikuntzak egiteko baimenak ematen hasi da Udala, kasu eztabaidagarriak ere sortu delarik lehen momentutik.

CONSERVAS MARTIKO, S.A.

Ahatetan espezializatuak



Ahate-foi
Gibel-gizena
Urdai azpikoa
Ahate-hegalak
Ahate-izterrak


Tfnoa: (948) 63 07 07
BERA

ZURE MAHAIRAKO AHATERIK HOBERENA

ELGORRIAGA

Mantso eta Mattin, urte bat egurra lantzen

TXEMA ALDABE



Urte bat izanen da gotti betti, Mantso eta Mattin elkartu zirenekoa, afizioa zela alde batetik eta lan eskasia bertzetik, hor ekin zioten egurra lantzerari. Bata lehendik ere aritua lan honetan eta bertzea ikasteko gogo haundiz. Horrela, lehenbiziko lana erlojuak, egurrezkoak alegia eta mota ezberdinetakoak. Sailtxo bat saldu ondoren, bertze lan gehienak ere egin dituzte, errate baterako marko tailatuak, eskudoak, tabernetan jartzeko letreroak, mueble edo altzari zaharrak saneatu eta tailatu. Beraiek diotenez edozein gauza tailatzen dute orain bertan etxebizitza baten kaprioak tailatzen ari dira. Batzutan ordu franko sartu behar dute baino gehienetan nahiko trankil dabilta.

Bertako egurra erabili ohi dute bere lanetan,

gaztaina, bago eta haritza gehien bat. Egurra tailatu ondoren tratamendu berezia ematen diote egurrari bipietik babesteko. Tratamendu hau egin eta gero,

nogalina eta argiziria ematen dute.

Perutea etxean dute beraien txokoa eta norbaitek nahiko balu, aski luke bertara hurbiltzea haien

lana ikusteko, harrera ona izanen du musika eta guzti.

Paseo berria

Horixe da egin asmo dutena, kurban eskuinaldetik pasatzen den erreka estali eta bertan bankoak eta arbolak paratzea.

Bertalde, herri erditik pasatzen den kanala estali egin dute, alde batetik arriskutsua zelako eta bertalde aprobetxamendu gehiago gelditzen zelako. Herriko zenbait estaltzearen kejo baziren ere, bertze batzuentzat arriskutsu eta artistikoki balio gabeko gauza zen.

Arau Subsidiarioak egiten ari

Horretan daude momentu honetan. Etxebizitza berrien kokalekua eta bideak nondik nora izanen diren zehaztuko da. Lehen balneario zena, etxebizitzak eraikitzeko lekua izanen da arau berri hauetan.

BEINTZAKO OSTATUA

Tfnoa.: 45 00 14
BEINTZA - LABAIEN



Lore artifizial eta naturalak, arropak, euskal keramika, zumezko mobleak, saskiak etabar.

Bittiria, Tfnoa: 63 74 94
LESAKA



JATETXEA

Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Publizitaterik onena preziorik tikienean

Zure iragarkiak Bortziriak, Malerreka, Bertizarana, Baztan, Leitza, Goizueta, Zugarramurdi, Sara eta bertze hainbertze herritara zabaldu nahi badituzu, deitu 63 11 88 Telefonora

EZKONTZAK

Agustin San Miguel Azpiroz eta **Nati Mitxelena Bazterrika**, Doneztebe eta Sunbillakoa, irailaren 30ean.

Angel Mari Aranburu Aldabe eta **Virginia Mitxelena Alloroa**, Iturengoak, Urriaren 20an.

M. Pilar Artola Azpiroz eta **Francisco Ugarte Errazkin**, Leitza eta Donostikoa, Urriaren 27an.

JAIOZAK

Eider Zugarramurdi Osa, Goizuetan, urriaren 24ean.

Juan Loiarde Loiarde, Goizuetan, urriaren 24ean.

Ugutx Zelaia Fernandez, Oitzan, urriaren 17an.

HERIOTZAK

Maria Luisa Ruiz Astiz, Donezteben, urriaren 8an, 55 urte.

Encarnación Elizetxe Olaetxea, Lekarotzen, urriaren 9an, 70 urte.

Mateo Aizpuru Sarratea, Oronotz - Mugairin, urriaren 14ean, 58 urte.

Carlos Portu Portu, Beran, urriaren 21ean, 74 urte.

Maria Barrios Garcia, Beran, urriaren 23an, 70 urte.

Miguel Lasaga, Iturenen, Irailaren 28an, 77 urte.

Francisco Apeztegia Saldias, Iturenen, Urriaren 19an, 89 urte.

Francisco Aleman Aleman, Arraiotzen, Urriaren 24ean.

M. Sagrario Lazaro Irungarai, Elizondon Urriaren 30ean.

Adela Taberna Latasa, Sunbillan, Urriaren 17an

Mateo Aizpuru Sarratea, Oronotz - Mugairin, 58 urte, Urriaren 14ean.

Felisa Gogorza Arraras, Leitza, Urriaren 19an.



DONEZTEBE:

Laister, argazkian ageri den antzeko 3.000m² industri-pabilioi eraikiko dira.



INFORMAZIOA:

Ezkalo Jauna
Tfnoa: 45 00 54
DONEZTEBE

Ferriak: Ohitura zaharrak galtzeko bidean?



Udazkenaren erdian, uda ahantzi eta eguraldia hozten denean ferriak datozkigu Elizondo, Doneztebe eta Lesakara, bakoitza bere ezau-garri bereziekin. Ez da, nolana ere, oraintxe-ko ohitura ferriak antolatzea.

Lesakan, 1.499 urtean Legarrea eta Pikuze-laia auzoen arteko bakea eskertzeko, erregeak merkatu egun bat ospatzea hamabost egunero eta honetaz gain, hamabost eguneko bi feria gitea urtean zehar onartzen du.

Elizondon, XIX. mendean asteazkenetik has-ten zen mugimendua eta ortzegunetik larun- batera ospatzen zuten feria. Larunbatari "atso-ferie" zeritzoten, etxeoandreek negu guzira-

ko probisioak (mantak, arropak, baratzuriak...) erosten bait zituzten. Ortzirala izaten zen egun haundia, jendea Banka, Urepel, Baigorri, Sara, Ezpeleta, Baztango herri guztietatik eta batez ere Aldudetik etortzen bait zen, eta tratanteak berriz, Iruñea, Donostia, Tolosa, Altsasu, Leiz-za eta beste hainbat herrietatik, azken hauek gorapetan iratze gainean lo egiten zutelarik. Erabiltzen zen hizkuntza bakarra, euskara nos-ki.

Donezteben ere, aspaldiko ohitura da ferie-na eta herritarren ustez, guttienez Lesakako-aren garaikoa da, aintzinetik ez bazen egiten.

AITOR AROZENA

Gaur egun, hiru herriotan ospatzen badira feriak, mende haserarte eskualdeko herri gehientsuenetan egiten ziren, orduan jende guztia baserri inguruan bizi baitzen. Urteak pasa hala, baserriar mundua ttikitzen joan da, industriak indarra hartu duen heinean, nekazaritza eta abelzantza ahultzen joan bait dira.

Ondorioz, hainbat herrietan eta urtean zehar hainbat alditan ospatzen ziren feriak, eskualdeko "hiriburuetan" urtean behin ospatzera pasa dira

Gaur egungo feriak

Feria egunak ongi finkatuak daude egutegian: San Lucas pasatu eta hurrengo ortzirala eta larunbata Elizondon, San Martin pasatu eta hurrengo ortzirala Donezteben eta normalean, Azaroaren azken asteazkena eta ortzeguna Lesakan.

Baserriarrek ez dute herrira jeisteko ohiturarik galdu, beraien aziendekin datozenak gero eta guttiago badira ere. Izango dute aukerarik aspaldi ikusi ez dituzten lagun zaharrekin hitzegi edo tragoxka elkarrekin hartzeko, baita konkurtsora aurkezten diren aziendak ikusi eta eritzia emateko. Lehiaketa hau da, gehien bat, baserriarrek etxeko abereak herrira ekartzera animatzen duena, eskuz esku eginiko elkartrukeak eskasak bai-



tira, batez ere Doneztebe eta Lesakan.

Hala ere, abereak ikusteko aukerak, herrietan barrena dauden denda-txoak eta jendetza ugariak, ukitu berezia ematen diete Elizondo, Doneztebe eta Lesakako feriei.

Merkatarientzat amua

Herri hauetara hurbiltzen den jendetzak, mota guztietako saltzaileak erakartzen ditu.

Baserri inguruko produktuen eskaintza zabala egonen da; aitzurrak edo tamaina guztietako aizkora eta joareak bertan eros-

teko. Nekazal tresneriaren merkatarientzat eskaparete ezin hobea da feria: baserriarrek tresneria ikusi eta beste egunen batean beraien dendetara agertuko diren itxaropenarekin agertzen dira ferietara merkataria hauek.

Badago, bestalde, gauza bitxiak erosteko aukera: kolore, tamaina eta mota guztietako txori, arrain edo dordokak, eskulanak, Zaragozano egutegiak, etabar...

Bertako merkatariei kompetentzia sortu ditzaketan produktuak ere salgai egoten dira; liburuak, diskak eta batez ere, arro-

pak. Hala ere, bertako dendariak ez dute salmenten jeitsiera haundirik ikusten, beraien ustez "urte osoan denda herrian egoteak garantzia bat ematen duelako, urtean behin etortzen diren dendariak ematen ez dutena".

Negoio borobila egiten dutenak, taberna eta jatetxeak dira. Baztanen adibidez, ohitura zaharra da ortziralean jatetxetan bazkaltzearena, gerra aintzinetik ere Aritzitia jate-txea, Hotel Lazaro edo Patxiuena bete beteak egoten bait ziren.

Etorkizunari begira

Ferien alde komertzialak (edo diruaren aldeak, nahiago bada) jarraituko duela ez dago zalantzik. Azienda lehiaketak jarraitzen duten bitartean baserriarrek ekarriko dituzte abereak, diru errexaren hotsak erakarrita. Merkatariek, noski, badakite nora jo. Jendea ugari dagoen tokian, xoxa ere izateko arriskua.

Baina ez al da hau diruaren ikuspegitik sobera begiratzea?

Baserriarrentzat besta egunik haundienak izaten jarraitzen dute feriak eta zenbait ohitura -Elizondon, turroiarena nabaria da- mantentzen dira. Beraz, badirudi feria egunak ez dutela desagertzeko arriskurik baina ez ote dute "Corte Ingles" baten itxura hartuko?



Mattari Altzuarte: « Jendea gizarteratzeko era bat da kirola »

Bi urte bakarrik dira iritsirik Bortzirietara eta dagoeneko nabari daiteke bere lanaren emaitza. Martin Altzuarte Gaztelu, Mattari, Anitzko baztandar bateragile honek aldarazi egin ditu kirol ihardueraz zeuden ikuspegi aunitz, bere ariketa kopuruaren gorakada handia lortuz, kirol arloko inoiz jorratu gabeko alderdiei helduz, aukera zabala eskainiz haur, adineko eta emakume sailei bereziki. Era honetan, Maisutza eta Lanbide Hezkuntza ikasketak amaiturik irakaskuntzara zihoana, kirolean aurkitzen da murgildurik, beti ere jendea gizarteratzeko kirol ariketa era garrantzitsu bat dela aiantzi gabe.

Hala ere, diharduen arloan ongi ezagutu arren eskuarean daukana, bere lan bertan datzan zehazki ez daki oraindik, ez dagozior federakide, monitore, margolari eta taxistaz ere, besteak beste, aritzea geratzen bait zaio maiz. *Bateragileak ez du lan zehatzik. Egin behar dena*

geuk ikasi dugu aurkitzen, gauza berriak sortzen dira aldiro eta ez dakigu egitan gure lana den ala ez. Dena den, alderdi honetako kirol guztia, dagoena, bateratzea litzateke gure lan zehatza” deritzo Mattarik.

Aurretik horrela bada ere, tokian tokiko egoera bakoitzari egokitu behar izan ohi da lana. *“Bertan neukan giza eta ekonomi*

egoera aztertzea izan zen nire lehen egitekoa iritsi nintzenean” gogoratzen du bateragileak: *“lanean hasteko jendea eta elkarteak eta zeuden instalakuntzak ezagutu behar nituen, baita kirolarekin loturik zegoen jendearekin harremanetan jarri ere. Horizen zailena, haien mailan paratzea, bat gehiago izanez. Horretarako, Beti Gazten*

sartzeak lagundu egin zidan, Gure Txokoa Elkar-tearekin berri ezagutzen nituen zenbait pertsonen bitartez harremanetan hasteko”.

Beharrak eta helburuak

Bortzirietara iristerakoan *“gazteriaren sail batetan, emakumeenean batetz ere, deus ez zegoela*

ikusi nuen eta alderdi horretan errotu zen funtsean nire ekimenetarako aumitz. Orduan, gizonentzako futbola, pilota eta txirrindularitzaz gain, elkarteek biltzen ez zituzten kirolen eskaintza berriak egin ziren, neskei aukera eman asmoz.

Saskibaloï, eskubaloï eta futbola arretarako monitoreak bazeudela ikusirik, taldeak sortzeko ahalbideak aztertu egin genituen.

Horretarako – darrai Altzuartek – bi aukera zauden: Gure Txokoa eta Beti Gazte elkartu edo host herriak elkartuko lituzkeen talde berri bat sortu. Baina lehen aukera burutu ahal izateko egoera ez zirudien oraindik egokia zenik, bi elkarteak batzeko mentalitatea ez zegoen adieraziriko helbururako prest, nahiz eta nik Bortziariak osoa elkarte batetan bildu beharko litzatekela uste izan: ondorioz, Bortziariak Kirol Elkarte bat sortu genuen”.

Baita ere, kirol bateragilearen lana beste sailetarra ere hedatu da nabarmenki, hara nola, ikastetxeetako neska-mutikoenetara baita adineko pertsonenetara ere. “Bai, haurrei kirol eskolen bidez astelehenetik larunbatera arte hautaturiko kirola egiteko aukera eman egin diegu, gazteentzat taldeak sortuz eta karate eta mantenimendu-



rako gimnasia adinekoentzat” dio Mattarik aurrerago.

Azpiegitura

Lana burutu ahal izateko pertsona eta instalakuntzez hornituriko azpiegitura beharrezkoa da. Era honetan, kirol moeta ezberdinetarako prestaturiko berrogeitamar monitore baino gehiago daude. Ho-

rrez gain, azpiegituran instalakuntzak derrigorrezkoak dira, baina “gaur egun dauzkagunak ez dira hain txarrak” bategilearen ustez.

“Hala eta guztiz ere, – eransten du – taldeak sortzearekin eta jendearen eskariari erantzun ahal izateko instalakuntza gehiago behar dira; Beran, adibidez, egiten ari direnekin

bertako eta eskualdeko eskariari aurre egiteko nahikoak izanen dira. Bestalde Lesakan dagoena zerbait hobetuz, Etxalar ongi dago, Igantzi eta Arantza daudelarik gaizkiago”.

Laguntzaileak edukitzea ere beharrezkoa da kusa Altzuartek. “Haurrek, lehian aritzeaz gain – zehazten du – beren bizitzako aldi garrantzitsu batetan daude, gazterian alegia, harremanak izateko une egokia, taldeen bidez; horretarako, gurasoen laguntza funtsezkoa delarik, bidaietan, haiekin egonez edota animatuz, jendea gizarteratzeko era bat bait da kirola, beste ekimenetarako giro egokia sortuz”.

Etorkizunaren aurrean

Mattariren eritziz, gaur egun lanean diharduen jende urria erretzen doa eta berririk agertzen ez denez gero, eskariari aurre egin ahal izateko “etorkizunean Udalek kirol plangintza bat burutu egin beharko dute taldeekin batera”.

Bestalde, “guri ez dagozkigun lanak egiteko, behe maila eta bateragilearen arteko bultzatzaile irudiaren sorketa ere beharrezkoa litzateke”, adierazten du.

ROMAN HARRIBILAGA

Jose Mari Oronotz Saratarrak irabazi zuen X. Lizuniagarako Igoera Krossa

Lasterketa nabarmena Antonio Bru beratarrarena gazte mailan

Sarako Jose Mari Oronotz gertatu zen irabazle gazte, senior eta adindu mailak gizonetzkoetan eta maila bakarra emakumezkoetan Gure Txokoa elkartekeo Atletismo Sailak iragan Urriaren 21ean Beran antolaturiko X. Lizuniagarako Igoera Krossean.

Lasterketaren irabazleak, bost kilometrotako ibilbidea burutzen 17.28ko denbora egin zuen. Pello Garinek 1.982an ezarri zuen 16.13ko marka hobetu gabe geratuz aurtengo edizioan ere.

Lasterketaren garapenerako hozgiro egokian, goizeko 10etan irten ziren larogeitamar atletak Eztegara frontoiaren ondotik, Lizuniaga Gaineraino iristeko. Atera bezain laister, Oronotz, Irazoki eta Pikabeak osaturiko taldeak abiadura azkarra eman zion lasterketari, berrehun metro inguruko tartea agudo lortuz Aizpiolea, Otero eta Sodupe osatzen zuten taldearekiko.

Ibilbidearen hiru kilometro egunik zeudela, Oronotzek ihes egin zuen aurrean zihoan taldetik, 30 metrotako abantaila erdietsiz, nahikoa nabarmen



90 atletek hartu zuten parte X. Lizuniagarako Krossean

sartzeko Lizuniagako helmugan. Kilometro erdia aintzinago, bigarren taldeak aurrekoa hartu zuen, giharre edo muskuloetako arazoak zituela eta Patxi Pikabeak lasterketa utziz une horretan.

Sailkapenak

Oronotz txapeldunaren atzetik, Angel Mari Aizpiolea irundarra iritsi zen bost segunduetara (17'33"), 17'49"ko denborarekin Doneztebeko Manolo Otero sartu zen hirugarren, 18'02" denborarekin Beraiko Juan Manuel Irazoki, 18'10"ekin Irungo Jose In-

azio Sodupe, 18'15"ekin Agoitzko Koldo Zia, 18'20"ekin Donostiako Jokin Mendiburu, 18'22"ekin Alfredo Mikelez, 18'24"ekin Miguel Angel Manchado eta 18'41"ekin Ramon Biturro gaztea.

Mailaz mailako sailkapenari begiratuz, seniorretan Jose Mari Oronotz izan zen irabazlea. Jose Inazio Sodupe adintuetan eta Ramon Biturro donostiarra gazteetan, gizonetzkoen dagokionez.

Emakumezkoetan berriaz, parte hartu zuten bost

lasterkarien artean, Donostiako Marisol Martinezek eskuratu zuen garaipena, ibilbide berebean 22'53"ko denbora eginez. Begoña Zuñigak 1.987 urteaz geroztik duen 20'47"ko markatik nahiko urrun geratuz beraz.

Baita ere, hamasei urtetako Antonio Bru beratarraren jokaera ere nabarmentzekoa da, gazte mailan bigarren geratu zelarik eta hamabigarrena sailkapen orokorrean, 18'43"ko denbora eginez.

ROMAN HARRIBILAGA

Baztan - Bidasoako Herri Kirol Txapelketan Sunbilla garaile

Elizondoko finalean, Sokatiran erabaki zen norgehiagoka


Sunbilla gertatu zen irabazle aurtien lehenbiziko aldiz antolatu den Herri Kirol txapelketaren finalean. Azaroaren Iean Elizondon jokatu zen azken saioan borts talde edo herririk hartu zutelarik parte, aurreko saioetan emaitzarik hoberenak lortu zituztenak alegia: Amaiur, Basaburua, NARBARTE, Sunbilla eta Zubieta.

Hurbildu zen ikusleagoa kontutuan hartuz, esperientzi arrakastatsua gertatu dela erran liteke, taldeen maila ere ona izan delarik.

Bi froga

Irabazlea, bosna puntuko bi frogatan erabakitzen zen: konbinatua edo anitza eta sokatira.

Lehenbizikoan, (kozkor bilketa, txingak, aizkora, zaku lasterketa eta arpana) NARBARTEKO taldea nagusitu zen 14 minutu eta



Felix Etxeberria, aizkolaria Sunbildarra

Artxiboa

31 segunduko denbora eginenez, eta bigarren Sunbilla, 14'36"kin. Erran behar da talde honek arpanean ebaiki bat gehiago egin behar

izan zuela, bat txartzat eman zitzaiolako. Hirugarren Amaiur izan zen 15'57"rekin, Basaburua laugarren 16'10"ekin eta

Zubieta bostgarren 17'10"ekin.

Sokatiran lortu zuten Sunbildarrak garaipena, denak denen kontra bina tiraldi egin ondoren denak irabazi bait zituzten, baita ustekabeko ederra eman ere Nafarroako txapeldunak diren Amaiurtarrei ere. NARBARTE izan zen hirugarren 5 tiraldi irabazi eta 3 puntu lortuz. Zubieta eta Basaburuak ingudean erabaki behar izan zuten zein laugarren gelditu, bina tiraldi irabazi bait zituzten. Azkenean Basaburukoentzat izan ziren bi puntuak.

Guzi honen ondorioz, sailkapena honela gelditu zen:

1. Sunbilla, 9 puntuz.
2. NARBARTE, 8rekin.
3. Amaiur, 7rekin.
4. Basaburua, 4rekin.
5. Zubieta, 2rekin.



Guzi hauen
zerbitzura gaude

Nakoxka

KOXKA NAVARRA, S.A.

ZERBITZU TEKNIKO

BERAN:

63 08 98 Tfnoan.

IRUNEAN:

26 64 11 Tfnoan.

Nerea

Oinetakoak

San Miguel 2,
DONEZTEBE

Etxaide

Etxaideren harmarria azpialde zuri gainean gurutze gorri bat du, eta bere bazterretan, lau "B" beltzak.

Bainan, "B" horiek zer esanahia dute?

Batzuentzat katearen zatiak dira, irudi hau beste nafar harmarrietan agertzen da eta. Baina beste esplikazio bat ere, askoz erromantikoagoa gainera, badago.


Bizanzioko enperadoreek Etxaideren bezalako harmarri bat erabiltzen zuten. Lau "B" horiek esaldi greziar bat aurkez-

ten dute: « βασιλεὺς βασιλέων βασιλεῶν βασιλενοῦταζ ».

Bere itzulpena hau da: "Erregeen erregea, erregeen gain erreinatzen".

Eta hain sinbolo exotikoa, zer egiten du Nafarroan? Badakizue XIV. mendean, Karlos IIgarrenaren garaian, nafartar talde batek Albania eraso zutela. Gero handik Greziaraino heldu ziren eta hiri asko menperatu zituzten. Han sortuko ote zen Etxaideren harmarria?

Ez dakigu, marrazkian agertzen den bertsioa, XVI. mendekoa bait da.



Pio BENEDICTO de URRUTIA



BAZTAN

ALTZARIAK

zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Koltxoiak

121 errepide nazionala, 54. km
IRURITA - BAZTAN



JAURENA

Sukalde mobleak - elektrogailuak
Rikardo Baroja 12, Tfnoa: 63 07 60 - **BERA**

ARO BERRIAREN ATARIAN

Astrologia





Izarretara begira

GIZONAK beti begiratu izan du zerura, han ikusten diren mugimenduak hemengo gertarekin erlazionatu dituztelarik.

Pentsatu behar da azken urte hauetan bizimodu aunitz aldatu dela eta lehenago aukera hobea zutela izarretara begiratzeke —elektrika-indarririk gabe, askotan kanpoan lo eginez—.

Herri bakoitzak ematen zien bere izenak izarrei, astroetan oinarrituz azaltzen zuten munduaren hasiera, gizartearen ordena, kondairak.... dena.

Gonbeni izanen litzateke zeruan ikusten dena hobekixeago ezagutzea eta horretarako hasiko naiz gaur "Osa Mayor" edo "carro" izenarekin ezagutzen den Hartz-Nagusia konstelazioarekin. Sasoi honetan, ipar-mendebal-



- Grezia eta Mediterraneoar herriak hartz haundi bat ikusten zuten konstelazio honetan.
- Europako iparraldeko herriek, aldiz, burduntzali bat.

dean kokatzen da ilunabarrean eta osorik ikusten da. Geroago, goizeko laurak aldera, zati bat gordetzen

da lurraren mugimenduarengatik.

Euskal mitologian "Zazpi ardiak" deitzen zen

izar multzo hau.

FERMIN ALTZUGUREN

Zuzentzaren

San Migel auzoa 27
DONEZTEBE

AZAROAREN
10EAN
IDEKITZEN
DUGU

A R R O P A K

MERKATU TTIKIA

▼ Etxebizitzak

•Lesakan lokal bat transpasatzen da Arretxea karrikan (Gaia). Tfnoa: 637410

•Doneztebe inguruan, 3.200m² duen borda bat salgai. 1.200.000. Tfnoa: 450054.

▼ Lana

•Delineazio industria-
la ikasi duen 22 urteko neska batek, lan eginen luke bulego batetan. Tfnoa: 450054


•Gitarra klaseak ematen dira. Tfnoa: 630217

•Andre bat eskeintzen da edozein lanetarako. Deitu 610751 tfnora. 6.30etatik 8ak bitartean.

•22 urteko neska eskeintzen da edozein lanetarako. Deitu 637095 tfnora.

•Ordu batzuz lan egiteko, Leitzan, andre bat eskeintzen da. Deitu 943-654143 Tfnoa. goizez.

•Klinika-auxiliar bat naiz eta lan egin nahi dut. Tfnoa: 450054



▼ Salerosketak

•Akumulatzaile elektriko bat saltzen dut, programadorearekin. Tfnoa: 630484.

•Piano-akordeoi elektroniko ttikia, 120 bajurekin saltzen dut. Egoera onean. Tfnoa: 637229.

•Motoa saltzen dut, Honda XL Paris Dakar 200.000 pezetatan. 12.000 kilometro ditu. Deitu 637947 tfnora. Akintxo.

•Buggia saltzen dut R-12aren motorarekin. Oso merke. Deitu 637346 tfnora. Tomas Otxoteko.

•100 bat teila soberan badituzu gustora hartuko dizkizut. Tfnoa: 637229.

•Zerra bat, ez zirkularra erosiko nuke. Juan Bautista Oteiza. 580996 Arraiotz.

•Behi bat eta bere aretze gorria saldu nahi ditut. Behia lau urtekoa da. Deitu Zigako 581023 tfnora.

•3 behi "suiza", onak, beren aretxeeekin eta 4 hilabetez ernari den miga bat salgai daude. Tfnoa: 630733

•EBRO traktorea, 30 CVkoa eta ia berria den belarra pikatzeko diskoa salgai. Tfnoa: 630733.

•Egur eta ikatz sukaldea salgai. Interesatuak deitu 637984 tfnora.

▼ Denetarik

•Ekipoak alokatzen dira Udalentzat, bertsolarentzat, elkarteentzat, mitinetarako eta abar. Laia musika dendara deitzea bertzerik ez duzu 63 10 59.

•Beran, negutegiak jartzeko terrenoa behar dut. Metroko 700 pzta. artio ordainduko nuke. Tfnoa: 450054

▼ Harremanak

•"Apache"ri komando Sioux-ren partez. Urde alferra, beti oporretan zira eta gu egarrituak gira, segitzen baldin baduzu "Belearen" ikustera joanen gira.

ORRIALDEHONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

.....
.....
.....

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

DENBORAPASA



Alferrak		Udazkene-ko fruitua	Baigorriko herria	Potasioa		
Labainak		Denbora oro	Zodiako zeinu			
●	▶			Azkaine-koak		
●				▼		
▶						
●	▶	Gipuzkoa-ko herria	Lehen eta azkenekoa			
Baztanen, kapirioak	●	Neka	●			
▶	▼	▼	(Aurriz.) Itsaso	Kontse- nantea		
			Lehen bokala	●		
Gipuzkoan-duk	▶		Haurridea	▼		
Alea			Edo			
▶			▼	Garai		
				Eremu		
Zintzo	Bat	▶	Kontsonante bikoitza	▼	Noka, du	
	Gutiziak		Ezar		●	
▶	▼	Salto	▶	▼	500	
		●			50	
Emakumez-ko guraso	▶	▼	Janko egyptiarra	▶	Musika nota	
●			999		Mend. Erran	
▶			▼	Suari dario	▼	Röntgen
				Sarrera		Emakume izena
India	▶		Mosketoi ospetsua	▶		▼
Badago			Aluminioa			
▶			▼	Oztopo	▶	
				Fosforoa		
Ukaldi	▶		▼		Nauk, Gipuzkoa-ko Beterrin	▶

● Ferietan salgai aurki daitezkeen abere motak

Londres



Tenerife


Mallorca



TAILANDIA

INDIA / NEPAL

BRASIL



MALDAERREKA S.A.

Bittiria, Tfnoa: 63 74 04 - LESAKA